

ZINEMA

Materiala: Hiru aulki eta bi manta.

Jokatzeo era:

- ❖ Hiru jokalaria eta bi gidari behar dira. Beste guztiak ikusleak izango dira. Ikusleak jokalarien aurrean eseriko dira.
- ❖ Jokalari bat (bi edo hiru) gelatik kanpora aterako d(ir)a.
- ❖ Hiru aulki jarri, bata bestearen ondoan, eta manta batekin estali egingo da, sofa itxura emanez.
- ❖ Erdiko aulkia hutsik utzi eta albokoetan neska bi edo mutil bi eseriko dira (kanpotik etorriko dena mutila bada, neskak, eta, bestela, mutilak). Ahal bada kanpotik sartuko denarentzat gustukoak direnak.
- ❖ Gela pixka bat ilundu.
- ❖ Kanpoan dagoenari (edo daudenetako bati) sartzeko esan. Zinemara datorrela esango diogu.
- ❖ Esango zaio, berandu datorrenez, aulki bakarra dagoela libre eta bertan esertzeko.
- ❖ Balizko pantaila ikusleak dauden inguruan dago.
- ❖ Gidaria pantailan zer gertatzen den asmatzen eta kontatzen hasiko da: "Hor dago lehoia, pelikula hastera doa..., baina oso aspergarria dela iruditzen zaizu eta, gainera, ez duzu ezer ulertzen, beste hizkuntza batean delako. Zinematik irteteko zorian zaude, baina zure eskuinekoari begiratu eta... Claudia Sheaffer/ Tom Cruise da! Ezkerrera begiratu eta... Pamela Anderson/ Brad Pitt da! Aukera hau ezin dut galdu!".
- ❖ Gidariak jarraituko du: "Pelikula bukatu aurretik hauetako batekin ligatzea lortu behar duzu. Zer esango diezu? Saia zaitetz. Esaldi magiko bat dago eta hori esanez gero lortuko duzu helburua".
- ❖ Jokalaria saiatuko da, baina asmatuko ez duenez (ez baitago esaldirik) guk lagundu egingo diogu eta, horretarako, gelatik aterako dugu.
- ❖ Gidari bat jokalariekin dagoen bitartean, besteak erdiko aulkia kendu egingo du eta mantaz zuloa disimulatu; bigarren manta hartu, tolestu eta tarte horren azpian jarriko du. Ezker-eskuineko laguntzaileei esango die jokalaria sartu eta esertzera doan unean jaikitzeo.
- ❖ Kanpoan jokalariekin dagoen gidariak tarte horretan "esaldi magikoa" zein den esango dio (edozein eta dena prest egon arteko tarte betetzen saiatuko da.
- ❖ Jokalaria gelara sartuko da, esaldia esateko prest, eta esertzera doanean erori eta ipurdikoa hartuko du (horregatik jarri behar da manta, azpian, minik hartu ez dezan).

